



KONTRASTEKO MAHAI POLITIKOA

2024ko abenduaren 11a

GAI-ZERRENDA:

- 1.- Ongietorria ematea, ordezkariak aurkeztea eta bileraren helburua adieraztea.
- 2.- Enpresen Aholkularitza Foroak lehenasunezko zatitza jo dituen proiektuak eta jarduerak errepasatzea.
- 3.- Ideiak, ikuspegiak eta ekarpen berriak kontrastatzea eta trukitzea.
- 4.- Galde-eskeak.

BERTARATUAK (% 80)

DEITUTAKOAK		BERTARATUA K	EZ BERTARATUAK	
			Arrazoiak emanda	Arrazoirik eman gabe
Taxien ordezkaria	Jose Ignacio López		X	
Aisia kirolako ordezkaria	Igor Asensio	X		
Interpretazio zentro, gidari eta bidaia agentzietako ordezkaria	Josu Abeytua		X	
Ostatuetako ordezkariak	Ander Elortegi	X		
	Gorka Mendia	X		
Merkataritzako ordezkariak				
Algortako Dendak	Oriente Enríquez	X		
Romo Bizirik	Mikel Atxaerandio	X		
Getxo Enpresa	Jose Manuel Garay			X
Ostalaritzako ordezkariak				
Romo Bizirik	Raúl (Baste)		X	
Getxo Enpresa	Desireé Yeste	X		
ASOHGE	HUTSIK			
Alderdi politikoak				
Elkarrekin Podemos	Xabier Benito	X		
EH Bildu	Ibon Rodríguez	X		
PSEE	Carmen Díaz	X		
PP	Fco. Javier Elorza	X		
EAJ/PNV	Irantzu Uriarte	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapeneko Arloa				
Getxolaneko zinegotzia	Juanma González	X		
Ekonomia Sustapeneko lantaldea	Juan Jesús Blanco	X		
	Mirene Zabalgoeazcoa	X		
	Ane Osoro	X		
	Rubén Justicia	X		



1.- Ongietorria ematea, ordezkariak aurkeztea eta bileraren helburua adieraztea.

Juanma González GETXOLANeko zinegotziak hartu du hitza, bertaratutakoei ongietorria eman eta eskertzeko. Ondoren, sektoretako eta alderdi politiko bakoitzeko ordezkariak aurkeztu ditu.

Juanma Gonzálezek laburki azaldu dizkie kontrasteko mahai politikora lehenengoz bertaratutakoei haren funtzionamendua eta helburuak. Gogora ekarri da webgunean informazio gehiago dagoela eta akta guztiak eskura daitezkeela: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Enpresen Kontsulta Foroa- Enpresen Kontsulta Foroa](#)

Ez bertaratzea justifikatu dute honako sektore ordezkari hauek:

- Jose Ignacio López, BizkaiTaxi elkarteko ordezkaria.
- Josu Abeytua, Interpretazio Zentro, Gidari eta Bidaia Agentzien Mahaiko ordezkaria.
- Raúl de la Taberna Baste, Romo Bizirik elkartearen aldetik ostalaritzako ordezkaria.

Juanma González GETXOLANeko zinegotziak jakinarazi du iraileko azken sektore mahaietan eta 2024ko Kontsulta Foroan ez dela proiektu berririk planteatu, baina, batetik, informazioa bidaltzeko eta, bestetik, beste arlo eta erakunde batzuekin bitartekaritza-zereginetan jarduteko eskatu zela Getxoko zenbait gai eta proiekturen harira.

Juanma Gonzálezek guztira **sektore mahaien 21 eskaera** azaldu ditu, **egungo haien egoera egiaztatzeaz gain.**

2.- Enpresen Kontsulta Foroan proposatutako ekintzak erreparatzea.

Juanma Gonzálezek ekintzen bilakaera irakurri du, eta Merkataritzako Mahaitik hasi da.

MERKATARITZA:

- **2025eko GETXOBONO kanpainaren eredian hobekuntzak baloratzea, aurreko egunetan salmentak gelditu ez daitezen.**

Mirene Zabalgogeoazcoak (aurrerantzean, M.Z.) jakinarazi du saltokiak kezkatuta daudela GETXOBONO deialdia abiarazi baino lehen salmentak gelditzen direlako. M.Z. andreak komentatu du arloan mekanismo berri bat lantzen ari dela hori ez gertatzeko. Hona hemen proposamena baloratzeke: bonuak trukatzeko aurretiazko epealdia irekitzea bonuak aktibatze aldera.

Fco. Javier Elorza Alderdi Popularreko ordezkariak komentatu du baloratu beharko litzatekeela zer egin Getxobonoak aktibazio-epeaz kanpo trukatzeko dituzten pertsonekin.

Juan Jesús Blancok aipatu du proposamena baloratuko dela.



Ibon Rodriguez EH-Bilduko ordezkariak komentatu du dagoeneko Hernaniko bonuen kudeaketa helarazi diola Arloari. EH-Bilduk aipatu du Hernanin deskontuek merkatariak inplikatzan dituztela, eta jakitun da martxoko edo apirilko deialdian ezin daitezkeela aplika.

- ***Itxaso Zelaiak eta OKELBIZ elkarteak egindako “Haragiaren Azoka Getxon” ekitaldiaren proposamena helaraztea.***

M.Z. andreak komentatu du Itxaso Zelaiak helarazitakoaren arabera, GETXO izan zitekeela OKELBIZ elkartearen hurrengo Euskadiko HARAGI AZOKAREN kokagunea, eta Herri Bideari jakinarazi nahi zaiola ekitaldia antolatzearen gaineko bideragarritasuna azter dezan.

GIDARIAK, INTERPRETEAK ETA BIDAIA AGENTZIAK:

- ***Bilera bat deitzea GENTALIArekin, Kirol Portuko aholkularitza-enpresarekin, Ekonomia Sustapeneko Arloak eta mahaietako ordezkariak aurkezpen bat egin dezaten batera, komunikabideetan aurkeztutako proiektuari buruz.***

M.Z. andreak komentatu du Gidari, Interprete eta Bidaia Agentzien Mahaiak GENTALIArekin informazio-bilera bat planteatzea proposatu zuela eremuko merkataritzaren, kirol aisialdiaren eta ostalaritzaren etorkizuna argitzeko. Enpresari 2025ean informazio-bilera bat antolatzea proposatuko zaio Udaleko langileentzat eta mahaietako ordezkariarentzat.

- ***“GETXOZ GOZATZEKO PLANAK 2024” urteko memoriari buruzko informazioa bidaltzea; zenbat gurutzaontzi iritsi diren 2024an eta 2025erako aurreikuspena, ostatu-gauen kopurua Getxon urteko bigarren seihilekoan.***

M.Z. andreak azaldu du mahaiak lortutako beste akordio bat zela 2025. urtearen hasieran honako dokumentu hauei buruzko informazioa bidaltzea.

KIROL AISIA:

- ***Getxo Kirolak erakundeari eta Bizkaiko Foru Aldundiari helaraztea Ereaga hondartzan nabigatzeko kanal mugatua jartzeko beharra dagoela.***

Ane Osoro Enpresa eta Jarduera Turistikoen teknikariak esan du FANGALOKA dela Ereaga hondartzako txiringito-adjudikazioduna eta kirol-jarduera eskaintzera behartuta dagoela; hala, Aisialdi Mahaiaren proposatu zuen kayak eta surflariak uretara sartzeko gune bat mugatzea. Horrez gain, azaldu du Getxo Kirolakekin adostu ostean, kasu honetan FANGALOKAren ardurapekoa litzatekeela egunero ur-bazterrean bi banderatzeko eta buia-ilara bat jarri eta kentzea. Hala, sartzeko nabigazio-erria sortuko litzateke. FANGALOKA urtearen hasieran hasiko da aipatutako ekintza izapidetzen, 2025eko udako denboraldian gauzatu ahal izateko.



Ibon Rodriguez EH-Bilduko ordezkariak galdetu du nork kontrolatuko duen segurtasuna nabigazioko itsas kanal berri horretan. Ane Osorok aipatu du BFari berri emango zaiola 2025eko udako denboraldiari begira kontuan har dezan.

- **Getxoko Udaleko Sustapen Ekonomikoko Arloak enpresetarako dirulaguntzen 1. edo 2. ildoan kirol aisialdiko enpresen sustapen-materiala sar dadin baloratzea.**

Ane Osorok aipatu du enpresetarako dirulaguntzen 2. ildoan sartzen diren enpresa guztiei gastuak finantzatzen zaizkiela baldin eta jarduerak GETXOZ GOZATZEKO PLANEKIN lotura badute. Hala eta guztiz ere, esan du bestelako administrazio publikoek egiten dituzten beste dirulaguntza-deialdi batzuetara birbideratu zaiela publizitate-gastu hori diruz laguntzeko. Beraz, ez da bidezkoa Ekonomia Sustapeneko Arloak sustapen-ekintza horiek egun indarrean dauden laguntzen barruan sartzea.

- **2025eko Marketin Plana eta Turismoko Plan Estrategikoa garatzen laguntzea.**

Ane Osorok jakinarazi du dagoeneko lehen pausoak eman direla bi planak egiteko. Hala, informazio-bilera bat gauzatu da tokiko elkarte eta eragile turistikoekin eta, ondoren, sektorean inkesta bat eta elkarrizketa pertsonalak antolatu dira.

- **INGURU enpresako Álvaro Kirol Aisialdiko Mahaian sar dadin baloratzea.**

Ane Osorok komentatu du, Foroaren oraingo eredia kontuan hartuz, sektore mahaia kirol aisialdia eskaintzen duten enpresetan oinarritzen direla eta ez daudela pentsatuta kirol aisialdiko konponbideak eskaintzen dituzten enpresentzat, horregatik, mahaian hautagai hori sartzea ezetsi dela.

OSTALARITZA:

- **Lokalaren barruan eta kanpoan ekitaldiak antolatzeko moduari buruzko protokolo erraza definitzen duen dokumentua prestatzea.**

M.Z. andreak esan du Ostalaritza Mahaia dokumentu bat eskatu zuela lokalaren barruan eta kanpoan musika ekitaldiak egin nahi direnean Udalean baimena eskatzeko prozedura zehazte aldera, egun ez baitago argi, eta Udaleko arlo desberdinekin argitzearen zain dago.

- **KONTSULTA FOROKO Ostalaritza Mahaian hutsak betetzeko deialdia proposatzea.**

M.Z. andreak jakinarazi du mahaikideek azaldutakoaren arabera, mahaian partaidetzarik ez dagoela eta eske bat egin dutela mahaira proposamen berriak ekartzeko gogoia duten hautagai gehiago bilatze aldera. Horregatik, abian jartzeko bilkura bat antolatu zen, eta hurrengo puntuan zehaztuko da.



- **Ostalaritzako sektorea berraktibatzea: eskaintza hobetzea, ideia berriak, proiektuak, etab.**

M.Z. andreak jakinarazi duenez, Getxoko ostalaritzako sektoreak eskaintza gastronomikoaren kantitateari, kalitateari eta aniztasunari dagokienez agertutako kezka dela-eta ezohiko deialdi bat egin zen Getxoko eremu guztietako zenbait ostalarirekin, eta sektoreko arlo batzuetan hobetzearen aldeko kezka azaldu zen.

Juanma González GETXOLANeko zinegotziak esan du eskaintza ekimen pribatu baten bidez hobetu beharko litzatekeela eta ostalariek bultzatu beharko luketela, hortaz, ez litzatekeela Getxoko Udalaren erantzukizuna.

Ibon Rodríguez EH-Bilduko zinegotziak aipatu du arazoa eskaintza zabaltzea bada, Getxoko marka gastronomiko bat lan daitekeela eskaintza gastronomikoa ikusgai egiteko.

Bestalde, M.Z. andreak uste du herritarren aldetik Getxoko eskaintza gastronomikoari buruzko pertzepzio arazoa dagoela. Eta baietsi du Arloak sektore horretan lanean jarraituko duela.

TAXIAK:

- **Azpiegituren Sailari seinaleak eta taxien bi geralekuren kokapena berregokitzeko beharra helaraztea berriro.**

M.Z. andreak adierazi du bi geraleku daudela Areetan: PANDA jatetxetik gertu dago bat eta Bizkaia Zubiko plazatik gertu bestea.

- *Zalama geralekua (PANDA jatetxearen ondoan):* Hirigintza berrantolatzekeko prozesuan dago eta garraio publikoaren, herritarren, taxien nahiz zaborren beharrak batu behar dira. Sei hilabeteko epean hasiko dira obrak. Helarazi zaie.

- *Tomas Olabbarri eta Evaristo Txurruka kaien elkargunean (Bizkaia Zubiaren aurrean) dagoen geralekua:* Amaieran dagoen seinale bat mugitzea: Bidezaintzako teknikariari helarazi zaio mugitzeko eskaera. Taxi Tourraren seinalea oso argia da, baina ez da adierazten taxien geralekua non dagoen.

- **Taxi egokituari buruzko proiektuaren gaineko ikuspegi berria lantzea, beste eredu bat erabiliz.**

Juan Jesús Blancok aipatu du taxi egokitu berria eskuratzeko edo berregokitzeko deialdia argitaratu zela, eta abenduaren 31ra arte egongo dela indarrean. Oraingoz hutsik dirau, ez baita eskaerarik jaso.

Juanma González GETXOLANeko zinegotziak esan du deialdi berria argitaratzeak ez duela zentzurik. Horregatik, balizko konponbidea izan daiteke lizentzia berriak abian jartzea.



- ***Taxi zerbitzuen arreta eta eskea hobe kudeatzea: itsas geralekuen arduradunak.***

M.Z. andreak azaldu du Portuko Agintaritzza, Udal, Udaltzaingo eta taxilarien artean bilera bat egitearen zain daudela.

OSTATUA:

- ***Taxien Mahaiaren eta Ostatu Mahaiaren arteko bilera ezartzea, bezeroentzat onuragarria izango den hotelen erreserba-zerbitzua kudeatzeko merkataritza-lankidetzak adoste aldera.***

Gorka Mendia Ostatu Mahaiko ordezkariak komentatu du oraindik ez direla taxilariekin bildu, ostatuen eta taxilarien arteko aurre-erreserbaren kudeaketa berrirako merkataritza-baldintzak ez baitira definitu.

- ***Pentsioen/apartamentuen bezeroentzako zamalanetarako aparkaleku-aukera baloratzea, edo egonaldi luzeetarako TAO tarifak ezartzea.***

Arlo arduradunari Getxoko ostatuen zerrenda helarazi zitzaion, helbideak eta gela-kopurua barne, baloratzeko.

Bestalde, Gorka Mendia Ostatu Mahaiko ordezkariak eskatu du gaia premiaz konpontzeko, bezeroek mailetak uzteko arazoa egunero pairatzen baitute.

Oro har, azaldu du epe laburreko egonaldiak (mailetan zamalanetan aritzeko) check-in aparkaleku bat izan beharko luketela eta epe luzeko egonaldiak dagokienez (ostatu-gau asko), parkingak erabili beharko lirartekeela.

- ***Ibilgailuei Getxoko hotelak hobe seinaleztatzeko aukerak bilatzea.***

Juanma González Getxolaneko zinegotziak jakinarazi du Ostatu Mahaiak Getxora iristen diren turistentzako azalpenak hobetzeko eskatu zuela eta, horretarako, ibilgailuentzat Getxoko ostatuen seinaleak ipini nahi zituela.

Juan Jesús Blancok adierazi du gaur egun proiektua 2025eko aurrekontu-partidan sartuta dagoela. Bestalde, Irantzu Uriarte EAJ-PNVko ordezkariak azaldu du Gobernu Taldeak gaiari lehentasuna emango diola 2025ean aztertu eta egikaritzeko.

- ***Errepideko zirkulazioan identitate korporatiboko (GETXOKO MARKA KORPORATIBOKO) errotuluak, hiru tamainatakoak, sartzea baloratzea.***



M.Z. andreak adierazi du Bidezaintzaren Arloari jakinarazi zaiola GETXO eta LEIOA arteko muga zehazten duen konponbidearen egokitasuna baloratzeko (hiru dimentsioko errotulua edo arkuak), turistek argi izan dezaten non hasten den GETXO udalerria, Avanzadatik igaro ondoren eta biribilgunera heldu baino lehen.

Ibon Rodriguez EH-Bilduko zinegotziak ez du ulertzen azaltzen ari den balorazioa, kostuaren eta herriari egindako ekarpenaren arteko oreka bilatu behar baita. Eta aipatu du adierazteko seinale “merkeagoak” egon daitezkeela.

Orokorrean, guztiek erabaki dute herrira sartzeko seinaleen adierazpenak argiak ez direla, eta Udalak GETXO marka korporatiboa sustatu beharko lukeela. Horrez gain, Mikel Atxaerandiok esan du, Portugalete, Santurtzi eta Bilboren aldean, Getxok ez duela 3 dimentsioko letrekin egindako berariazko argazki-punturik. Ander Elortegi Ostatu Mahaiko ordezkariak erantzun du herriaren nortasunari buruzko kontua dela, eta turismoaren ikuspegitik GETXO marka korporatiboa bultzatu beharko litzatekeela, oso positiboa bailitzateke herriko ostatuentzat.

Bestalde, Oriente Enriquez Algortako Dendak elkarteko arduradunak erantsi du bezero asko iristen direla Algortako saltokietara galduta, eta herriari buruzko azalpen argiak eskatzen dituztela, ez baitute ulertzen non dauden edo Getxon zenbait tokira heltzen ez baitakite.

- ***Jarduteko beste modu bat baloratzea ostatuetan GETXHOTEL tiketak eman ahal izateko, betiere baldintzak betez, bisitariek ez dezaten turismo-bulegora edo turismo-informazioko gunera joan behar.***

Irantzu Uriarte EAJ-PNVko eta Turismoko zinegotziak esan du zenbait ostatutan (guztietan ez) jarduteko modua aldatu dela bezeroak turismo-bulegoraino edo informazio turistikoko punturaino ezinbestez ez joateko. Argitu du jarduteko modu berriak honako hauei ez diela eragingo:

- Igeretxe h. , Petit Palace Tamarises h. eta Etxetxu apartamentuak, turismo-bulegotik gertu daudelako.

Irantzuk jarduteko modu berriaren prozedura zehaztu du:

- Turismo-bulegoan aurretik posta elektronikoz betetako inprimakia jasoko da, eta egonaldi osoaren datak agertuko dira egun batzuk lehenago (halabeharrezkoa Udalarentzat).
- Dagozkion sarrerak bidaliko dira posta elektronikoz eta egonaldiko datak adieraziko dira bertan, zenbakizko kode bat adierazita, baliozkotzeko eta hornitzaileei ordaintzeko.
- Establezimenduak sarrerak inprimatuko ditu.

Oraingo jarduteko moduari eutsiko zaio bi aukeratan: bulegoen bidez eta inprimaki zigilatuekin edo erreserbaren baieztapena erakutsiz.

Amaitzeko, aipatu du aldaketa gutunez eta posta elektronikoz jakinarazi zaiola Ostatu Mahai guztiari: ordezkariari eta gainerako partaideei.



- ***Embarcadero hoteleko ordezkariak eskatu zuen bidegorria seinaleztatzeari buruz hainbatetan egindako eskaerari erantzuteko; zehazki, hotelaren irteeran bidegorria seinaleztatzea nahi dute, haien terrazatik irtetean talkarik egon ez dadin, terrazak itsas pasealekuko bidegorrira ematen baitu sarbidea.***

Fco. Javier Alderdi Popularreko zinegotziak esan du, oro har, Getxon presaz konpondu beharreko arazoa dagoela, hain zuzen, oinezkoen eta txirrindularien arteko istripuak. Haietan arreta handiagoa jartzea ezinbestekoa da, eta aipatutakoa beste puntu arriskutsu bat baino ez da. Orokorrean, aipatu da herrian txirrindulariak abiadura handiz dabiltzala.

Mikel Atxaerandiok ez du ulertzen nola Herri Bidearen Arloak bidegorria etxebizitzan aurrealdean edo hotelen ondoan egiten uzten duen, araudia eta ondoren sor daitezkeen balizko istripuak aurretiaz jakinda. Izan ere, gaur egun istripu horiek antzematen ari dira.

M.Z. andrearen esanetan, eskaera Bidezaintzaren Arloari helarazi zaio konponbide posibleak bila ditzan.

- ***Neguko TAOko ordutegia adieraztea: Igeretxe hoteleko ordezkariak adierazi du neguan bisitari ugari joaten direla hotelera TAOrik ote dagoen galdetzeko eta esaten zaiela neguan ez dela TAO ordaindu behar.***

M.Z. andreak azaldu du arlo arduradunari eskatu zitzaioela bisitarien ikusi dezaketan ikur edo oharra jartzeko, TAOren neguko ordutegia argi eta garbi adierazita.

- ***GETXOLANen berriazko prestakuntza-eskaintza hoteleko sektorearentzat:***

Ruben Justicia Ekonomia Sustapeneko Arlokoak adierazi du garatzeko eskea ez izan arren, prestakuntza-eskaintzei buruzko ideiak biltzeko aukera eman zela. Helburua da 2025ean irakastea, baldin eta sektorearentzat interesgarriak badira. Gorka Mendia Ostatu Mahaiko ordezkariak esan du oraingoz eskaerarik ez dagoela, baina bidezkoa bada, helaraziko dizkigutela.

MAHAI GUZTIAK:

- ***Kontratatorako laguntzen deialdiari buruzko informazioa bidaltzea.***

M.Z. andreak adierazi du gutxi gorabehera 30 eskaera jaso dituztela Lanbideren laguntzaz kontratatorako laguntzen deialdiaren barruan. Epea abenduaren 31ra arte irekita dago.

4.- Galde-eskeak.



- ✓ Mikel Atxaerandio Romo Bizirik elkarteko ordezkariak jakinarazi du Romon zenbait kasutan ostalariek terrazak jarri dituztela eta inguruko saltokietako erakusleihoak estali dituztela. M.Z. andreak esan du herri biderei buruzko ordenantzak ahalbidetzen duela, baldin eta erakusleihotik terraza hasten deneraino gutxienez 3,5 metro badaude. Are gehiago, terrazen ordenantzaren arduradunari helarazi zaio ordenantza ikuskatzen denean afektazio horiek kontuan hartzeko.
- ✓ Ibon Rodríguez EH-Bilduko ordezkariak oraingo Kontsulta Foroaren ereduak zalantzan jarri du, eta oraingo Gobernu Taldeari eskatu dio zer ereduak jarraitu behar duen baloratzeko etorkizuneko deialdiei begira. Gainera, esan du Kontsulta Fororako aurrekontua mugatua dela eta, ondorioz, kontrasteko mahai honetan proposatu diren gai asko epe laburrean konpontzeko arazoak direla, baina epe luzeko proiektuei ez zaiela erreparatzen.

Galde-eske gehiago ez dagoenez, Juanma González Getxolaneko zinegotziak bilkura amaitutzat eman du. Era berean, bertaraturakoei gogorarazi die akta guztiak Udaleko webguneko honako esteka honetan daudela:

[Getxo - Ekonomia Sustapena - Enpresen Kontsulta Foroa- Enpresen Kontsulta Foroa](#)

4.- Hurrengo urratsak: Kontrasteko Mahai Politikoa

KONTRASTEKO MAHAI POLITIKOAREN ERABAKIAK (2024-12-11):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
2. EH-Bildu: 2025ean Ereaga hondartzako nabigazio-kanal berrian segurtasunez sartzea nork kontrolatuko duen baloratzea.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
3. PP: Aktibazio-epe berriaz kanpo bonuak trukatzeko dituztenekin zer egin baloratzea.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera